

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Gasteizko Udalaren Prentsa, Komunikazio eta Protokolo bulegoari laguntzeko argazkilaritza zerbitzua kontratatzeko lehiaketa

2016ko urriaren 4an onetsi zen 2016/CONASO0340 zk. duen kontratazio dosierra, Gasteizko Udalaren Prentsa, Komunikazio eta Protokolo bulegoari laguntzeko argazkilaritza zerbitzua kontratatzeko.

1. Esleitzen duen toki-erakundea.
 - a) Erakundea: Vitoria-Gasteizko Udala.
 - b) Dosiera izapidetzen ari dena: Alkatetza eta erakunde harremanak
 - c) Dosier zenbakia: 2016/CONASO0340.
2. Kontratuaren xedea.
 - a) Xedearen deskribapena: Gasteizko Udalaren Prentsa, Komunikazio eta Protokolo bulegoari laguntzeko argazkilaritza zerbitzua.
 - b) Kontratu mota: zerbitzuak.
 - c) Aldaerak onartzea:
ez da aldaerarik eta bestelako aukerarik onartuko.
3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.
 - a) Izapideak: ohikoak.
 - b) Prozedura: irekia.
 - c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: ez.
 - d) Gauzatzeko epea: esleipenaren prezioa agortu arte eta inola ere urtebete baino gehiago.
 - e) Luzapena: urtebetekoa.
4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:
 - a) Aurrekontua, BEZ barne: 24.200,00 euro. Kopuru horretatik BEZari dagozkio: 4.200,00 euro.
5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:
 - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
 - b) Behin betiko bermea: kontratuaren aurrekontu osoaren (BEZik gabe) ehuneko 5.
 - c) Berme osagarria: ez da eskatzen.
 - d) Ordaintzeko modua: ikus administrazio baldintzen orriak.
 - e) Balorazio-irizpideak: administrazio baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.
 - f) Sailkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): ez da eskatzen.
 - g) Kaudimen teknika: ikus administrazio baldintzen orriak.

h) Kaudimen ekonomikoa: ikus administrazio baldintzen orria.

i) Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak: ez da halakorik finkatu.

j) Langileak subrogatzea: ez da egokia.

6. Agiriak eskuratzea:

a) Lekua: ARCO fotokopia-denda San Antonio kalea, 16; 01005 Gasteiz; telefonoak: 945 232813 eta 945 140678, faxa: 945140678–, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

c) Dosierra aztertzea:

Ogasun Saileko Erosketetarako eta Kontratazioan Laguntzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango da dosierra — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea, 01008 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 161616, faxa: 945 161780—, iragarkia EBAOn edo ALHAOn agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>

7. Eskaintzak aurkeztea:

a) Aurkezteko epea: 15 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea. Ondorio horiei dagozkienetarako, San Martineko herritarrei laguntzeko bulegoa itxita dagoen egunak jaieguntzat joko dira — Udalaren web-orriko kontratatzailearen profilean emango da horien berri—.

b) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio baldintzen orria.

Aurkezteko lekua: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea, 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

e) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

f) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala (administrazio agiriak) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliodun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

C gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin den balio-iritziaren mende dauden esleipen irizpideak baloratzeko agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren asteazken berean, hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta balorazio irizpideetarako agiri teknikoak, prezioa ez direnak, baina formula aplikatuz ebaluatu behar direnak) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean (www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak) adierazten den egunean eta orduan.

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 11n

Erosketetarako eta Kontratazioan Laguntzeko Zerbitzuko burua
MARÍA DEL MAR SAGARDOY BRIONES